

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024an euskara ikasteko beken deialdia egiteko hartutako erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 786453.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/786453>).

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024an euskara ikasteko beken deialdia egiteko hartutako erabakiaren laburpena.

Lehenengoa. Onuradunak

2023-2024 ikasturtean Amurrion erroldatutako pertsona fisikoak, hamasei urte beteak dituztenak, eta Amurrioko Udaleko langileak.

Bigarrena. Helburua

Deialdi honen xedea da Amurrioko herritarren artean, norgehiagoka-erregimenean, euskara ikastea sustatzeko dirulaguntzak arautzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Behin betiko onartu dira, dirulaguntzen gainerako oinarri arautzaileekin, 2024ko apirilaren 10eko ALHAOn argitaratutako dirulaguntzak arautzen dituen Arauaren 32. oinarria (41. zk.).

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetarako 23.000,00 euro bideratuko dira.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2024ko urriaren 1etik 31ra.

Amurrio, 2024ko irailaren 20a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA